# Bestelako Xedapenak

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

**1410**

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 28koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaitarako sailburuarena, ondoko aginduaren hutsak zuzentzeko dena: Agindua, 2008ko azaroaren 7koa, babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2.b) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, xedapen, ekintza edo iragarkiaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Babes publikoko etxebizitzak sustatzeko laguntzei eta alokairua bultzatzeko neurriei buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko azaroaren 7ko Agindua 2008ko azaroaren 19an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 222. zenbakian, eta bertan aipatutakoen moduko akatsak ikusi direnez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren.

Azaldutakoagatik, honakoa

EBATZI DUT:

***Artikulu bakarra.***– Honako xedapena zuzentzen da:

1.– 28011. orrialdean, 10. artikuluaren 5. paragrafoan, honakoa dioenean:

«5.– Sustatzaileek gehienez 6 hilabeteko epean formalizatu beharko dute mailegua behin-behineko kalifikaziotik (salbu eta aldez aurretiko banku-deskontua aukeratu badu) edo obra-lizentziatik zenbatzen hasita kalifikazioa beharrezkoa ez den kasuetan, eta maileguaren lehen disposizioa egin beharko du formalizatu zenetik zenbatzen hasi eta gehienez 6 hilabeteko epean.»

Honako hau esan behar du:

«5.– Onuradunek gehienez 6 hilabeteko epean formalizatu beharko dute mailegua diru-laguntza ematen duen ebazpenetik (salbu eta aldez aurretiko banku-deskontua aukeratu badute), eta maileguaren lehen disposizioa egin beharko du formalizatu zenetik zenbatzen hasi eta gehienez 6 hilabeteko epean.»

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 28a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

**1410**

ORDEN de 28 de enero de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se corrigen errores de la Orden de 7 de noviembre de 2008 sobre ayudas a la promoción de viviendas de protección pública y medidas de fomento al alquiler.

El artículo 24.2.b) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco establece que los errores u omisiones que no se deduzcan claramente del contexto y cuya rectificación pueda suponer una real o aparente modificación del contenido o sentido de la disposición, acto o anuncio, se salvarán mediante disposición o acto del mismo rango.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 7 de noviembre de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre ayudas a la promoción de viviendas de protección pública y medidas de fomento al alquiler, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 222, de 19 de noviembre de 2008, se procede a su corrección.

Por lo expuesto,

RESUELVO:

***Artículo único.***– Se corrige la siguiente disposición:

1.– En la página 28011, en el apartado 5 del artículo 10, donde dice:

«5.– Los promotores deberán formalizar el préstamo en un plazo no superior a 6 meses desde la calificación provisional (salvo que hayan optado previamente por el descuento bancario) o licencia de obra en los casos en que no sea necesaria la calificación, y realizar la primera disposición del préstamo en un plazo no superior a 6 meses desde la formalización.»

Debe decir:

«5.– Los beneficiarios deberán formalizar el préstamo en un plazo no superior a 6 meses desde la resolución de concesión de la subvención (salvo que hayan optado previamente por el descuento bancario) y realizar la primera disposición del préstamo en un plazo no superior a 6 meses desde la formalización.»

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de enero de 2009.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.